

## AKTA

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2021eko uztailaren 29a, osteguna

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 19:30      **BUKATZEKO ORDUA:** 21:15

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Anuska Esnal Oliden

**Zinegotziak**

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

### Gai-zerrenda

- 1.- 2021eko udal-aurrekontuaren bigarren hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.
- 2.- 2021eko bigarren hiruhilekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epearen berri ematea.

- 3.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 7/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 4.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 8/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 5.- Onartzea, egoki bada, udal-kiroldegiko erabileraren tarifak biribiltzea, 2021-2022 ikasturterako.
- 6.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Udalaren 2020ko aurrekontuaren Kontu Orokorra.
- 7.- Onartzea, egoki bada, aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko araudia.
- 8.- Onartzea, egoki bada, behin betiko eta borondatez sustatutako bajen araudia.
- 9.- Onartzea, egoki bada, giza baliabideen arrazionalizazio-programa: erretiro aurreratuko primak.
- 10.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, bide publikoa terraza eta mahai-tokiekin edota jarduera komertzialari lotutako bestelako elementuekin okupatu eta erabiltzeko udal-ordenantzari.
- 11.- Onartzea, egoki bada, Gabriel Uranga Atorrasagastik Orioko Udalari dohaintzan eskainitako ontzia.
- 12.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Arrantzale kaleko bidegorria hondartzako bidegorriarekin lotzeko proiektuari buruz.
- 13.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, lankidetza-hitzarmen bat sinatzeko, Orioko itsas ondarea sustatzeko Mutiozabal ontziolaren eta Etxeluze kultur ekipamenduaren erabilera eta ustiapena lagatzearen bidez.
- 14.- Eskariak eta galderak.

## **Esan-eginak**

### **1.- 2021EKO UDAL-AURREKONTUAREN BIGARREN HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

### **2.- 2021EKO BIGARREN HIRUHILEKOARI DAGOKION ORDAINTEKO BATEZ BESTEKO EPEAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

### **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 7/2021 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 7/2021 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 7.647 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko uztailaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2021eko aurrekontuari dagokion 7/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 7.647 euroko zenbatekoa du.

**2.-** Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

**a) Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko lekua:** Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 8/2021 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 8/2021 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 311.544 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko uztailaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** udal-aurrekontu propioaren 8/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 311.544 euroko zenbatekoa du.

**2.-** Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

**a) Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko lekua:** Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

## **5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-KIROLDEGIKO ERABILERAREN TARIFAK BIRIBILTZEA, 2021-2022 IKASTURTERAKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko uztailaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**ONARTZEA** udal-kiroldegiko erabileraren tarifak biribiltzea, 2021-2022 ikasturterako.

## **6.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2020KO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA.**

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2020ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2020ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertzeko eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharra idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2021eko ekainaren 11ko GAOn (109. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea eta oharra aurkezteko epea 2021eko ekainaren 14an hasi zen eta uztailaren 5ean bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**ONARTZEA** Udalaren 2020ko aurrekontuaren Kontu Orokorra, aurrekontu propioak osatzen duena.

## **7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALDI BATERAKO LAN-POLTSAK KUDEATZEKO ARAUDIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko ekainaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko araudiari.

**2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA**, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharra eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal-araudi hori interesatuen eskura dago udal-idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, behin betikoz onartutzat joko da udal-araudia, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

## **8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BEHIN BETIKO ETA BORONDATEZ SUSTATUTAKO BAJEN ARAUDIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko ekainaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** behin betiko eta borondatez sustatutako baje araudiari.

**2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA**, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharra eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal-araudi hori interesatuen eskura dago udal-idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal-araudia, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

## **9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GIZA BALIABIDEEN ARRAZIONALIZAZIO-PROGRAMA: ERRETIRO AURRERATUKO PRIMAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko ekainaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** giza baliabideen arrazionalizazio-programari: erretiro aurreratuko primak.

**2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA**, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharra eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal-araudi hori interesatuen eskura dago udal-idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal-araudia, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

## **10.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, BIDE PUBLIKOA TERRAZA ETA MAHAI-TOKIEKIN EDOTA JARDUERA KOMERTZIALARI LOTUTAKO BESTELAKO ELEMENTUEKIN OKUPATU ETA ERABILTZEKO UDAL-ORDENANTZARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuak batzordeak 2021eko uztailaren 8an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** bide publikoa terraza, mahai-toki eta jarduera komertzialari lotutako bestelako elementuekin okupatu eta erabiltzeko udal-ordenantzari.

**2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA**, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal-araudi hori interesatuen eskura dago udal-idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal-araudia, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Beñat Solaberrieta zinegotziak hartzen du hitza, Ingurumen, Obra eta Zerbitzuak batzordeko burua den aldetik, eta adierazten du, lehenik eta behin, oso pozik dagoela udal-ordenantza hau udalbatzarrak aho batez onartu duelako. Ordenantza estrategia orokor batean sartzen da, eta estrategia horren helburua da mantentzea Orioko nortasun-ezaugarriak eta bisitarientzako erakargarritasuna, espazio publikoaren irisgarritasuna eta paisaia-balioa batera zainduz eta irizpide argi batzuk aplikatuz: kalitatezko ostalaritza- eta merkataritza-zerbitzuak harmonizatzea, antolatzea eta sustatzea. Bigarrenik, adierazten du udal-araudiaren idazketan parte hartu duten eragile guztiek jarrera guztiz positiboa izan dutela, eta Orioko ostalarien ekarpenak ere jaso direla. Azkenik, adierazten du udal-ordenantza irekia eta dinamikoa dela, eta premien arabera aldatu daitekeela etorkizunean.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN talde politikoaren izenean, eta zorionak ematen dizkie udal bulego teknikoari, Ingurumen, Obra eta Zerbitzua batzordeko kideei eta Udaleko turismo- merkataritza- eta ostalaritza-teknikariari, udal-araudi hau prestatzen egin duten lanagatik eta guztien ekarpenengatik. Bestalde, adierazten du Ingurumen, Obra eta Zerbitzuak batzordearen bilkuran abstentzio-botoa eman ziola udal-ordenantza honen onarpenari, baina udalbatzarrean baiezkotzeko botoa eman duela, batzorde informatzailean emandako botoa zuzentzeko eskubidea erabiliz.

## **11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GABRIEL URANGA ATORRASAGASTIK ORIOKO UDALARI DOHAINTZAN ESKAINITAKO ONTZIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuak batzordeak 2021eko uztailaren 8an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**ONARTZEA** Gabriel Uranga Atorrasagastik Orioko Udalari dohaintzan eskainitako aisialdirako ontzia (kroskoa eta motorra). Ontziaren izena WHITE LADY ONE da, eta matrikula-zenbakia, berriz, hau: 7. SS-1-58-10.

## **12.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ARRANTZALE KALEKO BIDEGORRIA HONDARTZAKO BIDEGORRIAREKIN LOTZEKO PROIEKTUARI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza batzordeak egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**1.- JARRAITZEA** dagozkion lege-tramiteak eta informazio publikoko tramiteak, Arrantzale kaleko bidegorria hondartzako bidegorriarekin lotzeko proiektua onartzeko.

2012an behin betikoz onartutako Orioko Plan Orokorren testu bategineko II.3.2. planoak oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide nagusiak ezartzen ditu.

Bizikleta-sare nagusia osatzeko, ardatz nagusiarekin lotura egingo duen zati bat egitea falta da. Zehazki, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako Palotako eremua zeharkatzen duen zatia.

Ardatz nagusia osatzeko, hainbat aukera aztertu ziren 2021eko urtarrilean, eta horietatik 3b aukera onartu zen, egokiena zelakoan.

Aukera hori gauzatzeko, Earki arkitekto-taldeak exekuzio-proiektua egin zuen eta trazadura egiteko behar ziren lurak zehaztu zituen.

2021eko martxoan, Aymat enpresari adjudikatu zitzaion Arrantzale kaleko bidegorria hondartzako bidegorriarekin lotzeko proiektua gauzatzeko behar diren lurren balorazioa egiteko lana, lur horien banakako fitxak eta banakako balorazioak eginez. (Aymatek, ondoren, aholkularitza-lanak egingo ditu desjabetze-prozedura aurrera eramateko).



2021eko ekainaren 11n, Aymat-ek balorazio-txosten sinatua aurkeztu zuen Orioko Udalean.

Idatzitako proiektuaren edukia bat dator Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 233. artikuluan ezarritakoarekin.

Horren guztiaren ondorioz, bai Arrantzale kalea Orioko hondartzako bidegorriarekin lotzeko bidegorria eraikitzeko proiektua eta bai bidegorriak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda informazio publikoan jartzeko tramitea hasten da.

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** proiektu hori hogeit egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, proiektuaren exekuzioak eragiten diela uste dutenek aukera izan dezaten aztertzeke eta alegazioak aurkezteko, epe horren barruan.

Horretarako, proiektua eskuragarri egongo da [www.orio.eus](http://www.orio.eus). webgunean eta Orioko Udaleko bulego teknikoan.

## **ERANSKINA**

Arrantzale kalea Orioko hondartzako bidegorriarekin lotzeko bidegorria eraikitzeko proiektuak eragindako ondasunen eta eskubideen zerrenda.

## **ORIOKO HERRIA**

### **— Lurzatia: 01**

Titularra: Maria Digna Teresa Alzuru Arrueren oinordekoak.

Desjabetzea: 19,21 m<sup>2</sup>.

Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>.

Aldi baterako okupazioa: 17,69 m<sup>2</sup>.

Mugak: Iparraldean, Maria Digna Teresa Alzuru Arrueren oinordekoak; hegoaldean, Orioko Udala; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Landa-lurra. Poligonoa: 04. Lurzatia: 012.

### **— Lurzatia: 02**

Titularra: Maria Digna Teresa Alzuru Arrueren oinordekoak.

Desjabetzea: 27,42 m<sup>2</sup>.

Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>.

Aldi baterako okupazioa: 19,30 m<sup>2</sup>.

Mugak: Iparraldean, Jose Maria eta Jose Ignacio Aranguren; hegoaldean, Maria Digna Teresa Alzuru Arrueren oinordekoak; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Landa-lurra. Poligonoa: 04. Lurzatia: 009.

— **Lurzatia: 03**

Titularra: Jose Maria eta Jose Ignacio Aranguren Ortega.

Desjabetzea: 49,38 m<sup>2</sup>.

Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>.

Aldi baterako okupazioa: 23,30 m<sup>2</sup>.

Mugak: Iparraldean, Teresa Loidi Aierbe; hegoaldean, Maria Digna Teresa Alzuru Arrueren oinordekoak; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Landa-lurra. Poligonoa: 04. Lurzatia: 007.

— **Lurzatia: 04**

Titularra: Teresa Loidi Aierbe

Desjabetzea: 22,64 m<sup>2</sup>.

Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>.

Aldi baterako okupazioa: 37,71 m<sup>2</sup>.

Mugak: Iparraldean, Maria Digna Teresa Alzuru Arrueren oinordekoak; hegoaldean, Jose Maria eta Jose Ignacio Aranguren; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Landa-lurra. Poligonoa: 04. Lurzatia: 041.

— **Lurzatia: 05**

Titularra: Maria Digna Teresa Alzuru Arrueren oinordekoak

Desjabetzea: 46,85 m<sup>2</sup>.

Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>.

Aldi baterako okupazioa: 34,53 m<sup>2</sup>.

Mugak: Iparraldean, Lertxundi Agirre anaiak; hegoaldean, Teresa Loidi Aierbe; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Landa-lurra. Poligonoa: 04. Lurzatia: 033.

— **Lurzatia: 06**

Titularra: Francisco Javier, Juan eta Maria Gregoria Lertxundi Agirre.

Desjabetzea: 26,50 m<sup>2</sup>.

Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>.

Aldi baterako okupazioa: 22,84 m<sup>2</sup>.

Mugak: Iparraldean, Daniel Murgiondo Aierbe; hegoaldean, Maria Digna Teresa Alzuru Arrueren oinordekoak; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Landa-lurra. Poligonoa: 04. Lurzatia: 028.

— **Lurzatia: 07**

Titularra: Daniel Murgiondo Aierbe.

Desjabetzea: 28,64 m<sup>2</sup>.

Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>.

Aldi baterako okupazioa: 24,82 m<sup>2</sup>.

Mugak: Iparraldean, Jose Garate Tolosa; hegoaldean, Lertxundi Agirre anaiak; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Landa-lurra. Poligonoa: 04. Lurzatia: 024.

— **Lurzatia: 08**

Titularra: Jose Garate Tolosa.

Desjabetzea: 31,90 m<sup>2</sup>.

Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>.

Aldi baterako okupazioa: 26,25 m<sup>2</sup>.

Mugak: Iparraldean, Loreto Intxauspe Arostegi; hegoaldean, Daniel Murgiondo Aierbe; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Landa-lurra. Poligonoa: 04. Lurzatia: 062.

— **Lurzatia: 09**

Titularra: Loreto Intxauspe Arostegi.

Desjabetzea: 41,98 m<sup>2</sup>.

Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>.

Aldi baterako okupazioa: 35,39 m<sup>2</sup>.

Mugak: Iparraldean, Ramon Elizalde Eizagirre; hegoaldean, Jose Garate Tolosa; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Landa-lurra. Poligonoa: 04. Lurzatia: 055.

— **Lurzatia: 10**

Titularra: Ramon Elizalde Eizagirre.

Desjabetzea: 10,16 m<sup>2</sup> lurzorua eta 28,76 m<sup>2</sup> eraikuntza.

Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>.

Aldi baterako okupazioa: 7,14 m<sup>2</sup>.

Mugak: Iparraldean, Teresa Loidi Aierbe; hegoaldean, Loreto Intxauspe Arostegi; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Landa-lurra. Poligonoa: 04. Lurzatia: 051.

— **Lurzatia: 11**

Titularra: Teresa Loidi Aierbe

Desjabetzea: 346,11 m<sup>2</sup>.

Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>.

Aldi baterako okupazioa: 119,35 m<sup>2</sup>.

Mugak: Iparraldean, Orioko Udala; hegoaldean, Ramon Elizalde Eizagirre; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Landa-lurra. Poligonoa: 04. Lurzatia: 144.

— **Lurzatia: 12**

Titularra: Orioko Udala.

Desjabetzea: 0 m2.

Zortasuna: 0 m2.

Aldi baterako okupazioa: 1,8 m2.

Mugak: Iparraldean, errekaetara; hegoaldean, Teresa Loidi Aierbe; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Bide publikoa.

### — Lurzatia: 13

Titularra: Ura Ur-agentzia

Desjabetzea: 0 m2.

Zortasuna: 0 m2.

Aldi baterako okupazioa: 12,23 m2.

Mugak: Iparraldean, Orioko Udala; hegoaldean, Orioko Udala; ekialdean, Hondartza kalea; mendebaldean, finkaren gainerakoa.

Katastroko izaera: Errekastoia.

## **13.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, LANKIDETZA-HITZARMEN BAT SINATZEKO, ORIOKO ITSAS ONDAREA SUSTATZEKO MUTIOZABAL ONTZIOLAREN ETA ETXELUZE KULTUR EKIPAMENDUAREN ERABILERA ETA USTIAPENA LAGATZEAREN BIDEZ.**

Udalbatzarrek gaiaren berri jakiten du.

Hitzarmenaren xedea da Orioko Udalaren eta ALBAOaren arteko lankidetzaren oinarriak ezartzea, Mutiozabal ontziola erabiltzeko lagapen eksklusiboa egiteko, Orioko itsas ondarea zabaltzeko eta euskal ontzi tradizionalak eraikitzea eta zaharberritzea sustatzeko, lau urteko epean: 2021-2024.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Turismo, Merkataritza eta Ostalaritza batzordeak 2021eko uztailaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EH BILDU), Ainara Munduate Iguaran (EH BILDU), Xabier Ibarguren Azkue (EH BILDU), Beñat Solaberrieta Albizu (EH BILDU), Bakarne Oliden Albeniz (EH BILDU), Bittor Andres Alkorta (EH BILDU) eta Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbieta (EAJ), Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN); guztira **SEI ABSTENTZIO-BOTO**];

**ONARTZEA** Orioko Udalak lankidetza-hitzarmen bat sinatzea ALBAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIArekin, Orioko itsas ondarea sustatzeko Mutiozabal ontziolaren eta Etxeluze kultur ekipamenduaren erabilera eta ustiapena lagatzearen bidez.

Emandako botoa azaltzeko, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak erabaki hau bi multzotan bozkatu nahi zuela: alde batetik, Orioko itsas ondarea Mutiozabal ontziola erabili eta ustiatzeko lagapenaren bidez sustatzeari buruzko bozketa, eta, bestetik, Etxeluze udal kultur ekipamenduaren erabilerari dagokion bozketa. Horrela egin ez denez, bere talde politikoak abstentzio-botoa eman du, kontuan hartuta guztiz bat datozela Orioko itsas ondarea Mutiozabal ontziola erabili eta ustiatzeko lagapenaren bidez sustatzearekin, baina ez Etxeluze udal kultur ekipamendua horretarako erabiltzearekin. Etxeluze arraunketa eta piraguismoko teknifikazio-zentroaren pare-parean dago, eta, beren ustez, ez da kokapen egokia hitzarmenean planteatzen den erabilerarako.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, Orain plataformaren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak ere bi multzotan bozkatu nahi zuela erabaki hau: alde batetik, Orioko itsas ondarea Mutiozabal ontziola erabili eta ustiatzeko lagapenaren bidez sustatzeari buruzko bozketa, eta, bestetik, Etxeluze udal kultur ekipamenduaren erabilerari dagokion bozketa. Horrela egin ez denez, bere talde politikoak abstentzio-botoa eman du. Nolanahi ere, adierazten du bere botoa beharrezkoa izan balitz lankidetza-hitzarmena onartzeko, ez zuela inolako eragozpenik izango baieztatu botoa emateko, abstenitzeko partez. Adierazten du lankidetza-hitzarmenean aipatzen den proiektua «txoriak eta loreak» direla iruditzen zaiola eta ez dela «errealista».

Bakarne Oliden zinegotziak hartzen du hitza, Turismo, Merkataritza eta Ostalaritza batzordeko burua den aldetik, eta adierazten du, polemikan sartzeko asmorik gabe, Orioko Udalak gardentasun osoz jokatu duela, eta dagokion batzorde informatiboak bilera ugari egin dituela lankidetza-hitzarmen horren idazketa erabakitzeko eta argitzeko. Esaten du, baita ere, hitzarmen honen bidez abiatzen den proiektua estrategikoa, garrantzitsua eta ilusionagarria dela. Proiektua oso ondo landuta dago, Udaleko Kultura batzordearekin batera eta harekin ondo koordinatuta, arlo horretan indarrean dagoen araudia betez.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du proiektu honek «dena daukala», eta, berari dagokionez, kontu bakarra geratzen dela erabakitzeko: ea «non sinatu behar den» aipatutako lankidetza-hitzarmena. Adierazten du, azkenik, proiektu honek balio handia daukala Orioko herriaren etorkizunerako eta erriaren dinamizaziorako.

#### **14.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du dagoeneko pasatu dela agintaldiaren erdia eta, hori dela eta, elkarrizketa bana egin dietela, KARKARA aldizkarian eta HITZA egunkarian, bai berari eta bai Lourdes Salsamendi zinegotziari (EAJ). Adierazten du

faltan bilatu duela elkarrizketa-erronda horretan Ana Priede (PSE) eta Jose Angel Iparragirre (Orain plataforma) zinegotziek ere parte hartzea

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, udal-agintaldi honen erdiaren balantzea egiteko. Adierazten du lana ondo antolatu eta planifikatu dela eta egoki banatu dela Udaleko zortzi batzorde informatiboetan. Ana Priedek nabarmentzen du ordenantza fiskalak eta udal-aurrekontuak garaiz eta behar bezala onartu direla. Adibide gisa, adierazten du gizarte-ongizatearen arloan hirukoiztu egin direla aurrekontu-partidak eta dirulaguntza berriak aurreikusi direla familientzat. Adierazten du, baita ere, erabaki garrantzitsuak hartu direla langileen arloan: aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko araudiaren onarpena, behin betiko eta borondatezko baja sustatuen araudiaren onarpena eta giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren onarpena: erretiro aurreratuko primak. Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren idazketari dagokionez, adierazten du aurrerapauso garrantzitsua eman dela Hirigintza batzordearen bilerak hamabostean behin eginda. Arlo politikoari dagokionez, azkenik, Ana Priede zinegotziak adierazten du, agintaldi honetan, orain arteko ordenantza fiskalak eta aurrekontuak aho batez onartu dituela udalbatzarrak eta hori oso garrantzizkoa dela. Hori dela eta, adierazten du zoriondu beharrekoa dela alkateak eta gainerako udal talde politikoek egindako lana.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, udal-agintaldi honen erdiaren balantzea egiteko. Adierazten du beretzat hirugarren agintaldia dela eta denetan «gauza onak eta txarrak» egon direla. Adierazten du azken bi urte hauek oso emankorrak izan direla, eta udal-oposizioaren jarrera egokia nabarmentzen du. Esaten du, azkenik, oso gustura sentitzen dela udal-agintaldi honetan.

Alkateak hartzen du hitza berriro eta adierazten du oso harrigarria egin zaiola Lourdes Salsamendi zinegotziak KARKARA aldizkarian eta HITZA egunkarian emandako elkarrizketa. Lourdesek, elkarrizketan, esaten du udalbatzarraren erabakien %99,99 aho batez onartu direla eta esaten du, baita ere, hori aurreko udal-agintaldiaren emaitzak jasotzen ari direlako gertatu dela. Alkatearen iritziz, Lourdes Salsamendi zinegotziak egindako baieztapen hori ez dator bat errealitatearekin, kontuan hartu behar delako, aurreko agintaldian, EAJ talde politikoak alkatetza zeukala, lidergo argi bat falta izan zela erabakiak hartzeko, eta oposizioak (EH BILDU, PSE eta ORAIN) lan izugarria egin behar izan zuela. Adierazten du, baita ere, EAJk ez zuela ia ekarpenik egin gizarte-zerbitzuen arloan; eta, bestalde, nabarmentzen du EH BILDU talde politikoak Motondoren ingurumen-balioak berreskuratzeko Madrilen egindako gestioak oso garrantzizkoak izan zirela.

Aipamenengatik, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza. Lehenik eta behin, adierazten du KARKARari eta HITZari emandako elkarrizketa udal-agintaldi honen erdiaren balantzea egiteko izan dela, eta errespetuz eta polemizatzeko asmorik gabe egin duela. Esaten du ez zaiola iruditzen udalbatzarra leku egokia denik gai horri buruzko azalpenak emateko. Adierazten du, baita ere, EAJ talde politikoa prest dagoela beti laguntzeko Orioko herriaren aldeko ekimenetan eta, azkenik, nabarmentzen ditu EAJ talde politikoak egin dituen gestioak Oribarzar hondartza lehengoratzeko dirulaguntzak lortzeko, eta adierazten du orain udal-gobernuari dagokiola gai hori

kudeatzea. Lourdes Salsamendik bukatzen du esanez tranpa bat eta segada bat iruditu zaiola alkateak esan duena Karkaran eta Hitzan Lourdesek emandako elkarrizketari buruz.

Amaia Gozategi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza, eta adierazten du berak ez duela estrategia politikoez ulertzen, eta asko ikasten ari dela Gizarte Ongizate batzordea osatzen duten zinegotziek egiten duten lanetik eta guztiei eskerrak eman besterik ezin duela egin. Bukatzen du esanez ez duela ulertzen alderdi politikoez eta soilik pertsonez eta lantaldeez ulertzen duela.

Ana Priede zinegotziak (PSE) hartzen du hitza, eta adierazten du ez duela zalantzan jarriko Lourdes Salsamendi zinegotziak KARKARAn eta HITZAN egindako elkarrizketaren zilegitasuna, baina edukia harrigarri egin zaiola, bertan egin dituen baieztapen batzuk ez direlako egia. Adibide gisa, hauek aipatzen ditu:

- 1.- Orioko plaza urbanizatzeko lanen exekuzioari dagokionez, 2016. urtean ez zegoen aurrekontu-partidarik, ezta obren proiektu teknikoa egiteko ere.
- 2.- Anibarko Portuan proiektatutako apartamentu babestuak udal-arkitektoak proposatu zituen.
- 3.- Munton proiektatutako etxebizitzaren sustapena udal-oposizioak 2018ko otsailean aurkeztutako mozio baten ondorioz abiatu zen. Mozio hartan proposatzen zen Eusko Jaurlaritzari udal-partzela bat lagatzea, alokairuko etxebizitzak sustatzeko.
- 4.- Orioko pobreziaren azterketa egiteko 13.000 euroko aurrekontu-esleipena ere udal-oposizioak egindako proposamen baten ondorioz ezarri zen, 2017ko martxoan, eta azterketa hori 2018ko uztailean jarri zen martxan.
- 5.- Udalaren 2019ko aurrekontu propioa udal-oposizioak aurkeztutako zuzenketen ondorioz idatzi zen.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**